biblioteca infantil
Fundación ONCE

ILUSIOA ZABALTZEN DUTEN IPUINAK

bibliotecainfantil.fundaciononce.es

Fundación ONCE





# BALTASAR
## ikertzeko jaio da



DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.






## GAIXOTASUN ARRAROAK

Gaixotasun arraroak sintoma ezberdinen multzoa dira

ETA OSO GUTXITAN EMATEN DIRA

Erne! Mila pertsonatik batek edo bik jasaten duen gaixotasuna arrarotzat jotzen da.

Hamaika mota daude eta oso gutxi dakigu haietaz, horregatik esaten dugu gaixotasuna dela arraroa,

ETA EZ PERTSONA.

Batasunak indarra dakar, eta, horregatik, medikuek, gurasoek eta gaixoek eurek bat egiten dute IRTENBIDEAK BILATU eta gaixotasun arraroak dituzten pertsonen bizitza hobetzeko.



DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.



5

Garrantzitsuena DIAGNOSTIKOA da, eta, horregatik, ikerketa bultzatu behar da.

Baltasarrek GAIXOTASUN ARRARO bat du.

Ez daki zer den ordea. Ikertzaile izatea erabaki du, gaixotasunei buruz gehiago jakiteko eta denentzat tratamendu onak bilatzeko.

Txiki baina izugarri.

**Baltasar gustatuko zaizu ikaragarri.**

6

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.

**ITSASOAREN SOINUA GUSTATZEN ZAIT.**

Olatuak hara eta hona dabiltza.
Nola egingo dute? Haien atzetik noa eta
gero haiek ni jarraitzen naute.

Korri gehiago eginda ere, beti ukitzen
dizkidate orkatilak eta KILI-KILI egiten
didate oinetan. .

Harea bustia gogoko dut,
baina hare lehorrak GOGAIT egiten dit.

Amatxok hareatan ibilarazten nau, ahoskatzeko zaila
den zerbaitengati **MOTOR-ETA- ELEKTRIZITATE** itxura
hartzen diot nik.

7

Itsas ondoko herritxo batean bizi naiz,
eta itsasertzera hurbiltzen naizen
bakoitzean, **AMONA** daukat honela:

*“Balta, oinak bakarrik sartu...Bestela... ”*

"Bestela" horrek beldurtia behar du izan.



8

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.

Hiriburura jaisten naizenean
"hospira" noa. Han dena da ZURIA.
Hormak, txabusinak, oinetakoak, izarak,
hodiak, hortzak, ileak, eta baita nire
doktore gustukoena
Blanca izena du...



Agian HODEI
batek margotu ditu denak ?



Eskolan KOLOREAK daude.

Marisak, nire irakasleak,
bloke handiak ematen dizkit.
Nik kokatu egiten ditut.

Sokasaltoan ibiltzea,
pilota izugarriekin
JOLAS EGITEA eta
kroketarena
eginez arrastatzea
gustatzen zait.




BARRE POLITA BEHAR DUT IZAN,
NIRI BARRE ERAGITEA GUSTATZEN BAITZAIO.



DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.



ADINEKO PERTSONAK ARRAROAK
Bada, serioak.
Ez diete gauzei SO EGITEN
ogi-mamia eramateko gai
ez den inurritxoari
hostoa eraman duen haizeari...

Nora eramango ote du?



Uretan dauden koloretako
marrainak ez dituzte ikusten,
*hain dira politak!...*





**Jakin-nahia** esaten zaio horri.
Horregatik, handitan, Blanca bezalakoa
izan nahi dut, zer gertatzen
zaidan ikertzeko.
Diotenez,
gaixotasun arraro bat dut
Eskuetako behatzak
guztiz hazten ez
zaizkidan horrekin
**lotura izango duakaso?**
Medikuek ez dakite zer
daukadan. Kasu
gehiagoren
**bila** dabiltza
diagnostikoa
lortzeko.





DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.

HITZ EGITEA kostatzen zait,
eta ez naiz Luisma edo Allison
bezain abila (nire lagunik on-onenak dira).

Orban ikaragarria daukat hemen,
*jaio eta berehala* egin zidaten
ebakuntza batengatik.

Eta, arnasa hartzean, **bihotzean**
ziztadak nabaritzen ditut..
Gaur arratsaldean lehenago alde egin dugu
hondartzatik, eta hori olatu *apartak zeudela.*



Kontua da IKERKETA BATAILOIA GENUELA
(nik jarri diot izena).

13



Astean behin nire
*gurasoak* eta ni
irakaslearekin
eta MEDIKUEKIN
biltzen gara
(ordenagailuz egiten dugu
eta ikusi egin ditzaket
gainera).
Milaka AURRERAPENEI BURUZ
hitz egiten dugu.

Gurasoak lasaiago daude,
pixkanaka-pixkanaka
AURRERAPAUSOAK
ematen goazelako.

14

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.



Haiek irribarretsu **ikustea atsegin dut**. Zenbateraino maite ditudan jakingo dute? Ziur nago baietz, urtzerainoko besarkada bero-beroak ematen dizkidate eta.

**HONDARTZATIK GERTU** irla bat dago. Aitatxok, izugarri dakiela, ITSAS HONDOAN ERROMATAR ITSASONTZI BATEN ARRASTOAK DAUDELA DIO.
Benetan gustatuko litzaidake ikustea.

ZUEN USTEZ BERRIRO FUNTZIONATUKO LUKE?

15



Gora igotzeko moduren bat **topatu beharko** litzateke. Bururatuko zaio zerbait aitatxori.
Gero, ZULOAK itsatsi beharko lirateke.
Amatxok "dena itsasten duen" horietako bat dauka, egundokoa da. Azkenik, kandelak jarri beharko genizkioke.
Amonak tela mordoa du.
Eskatuko dizkiot.



Berriro nabigatuko dute.

16

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.

Baita nik ere, eta
ez naiz soilik aitatxorekin
itsasoratuko,
erromatar haiek egiten zuten eran.

"Lur berrien" aurkitzailea
izango naiz, gaixotasun arraroak
dituzten haurrek
ALTXOR
ghandiak topa ditzaten.

*Tximistek, olatuek, izpiek eta sirena-hotsek ere ezingo gaituzte geldiarazi.*

17



Baltasar,
naizelako,
ikertzaile
izatekojaioa...

amaiera

18

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.